

ITEM, berrikuntzaren inguruko azken joerak, lanabesak, estrategiak, praktika onak eta kontzeptu aurreratuenak gerturaten dizkizun separata bildumagarria. Emanaldi berri honetan Hozizon2020, Europako ikerkuntza eta berrikuntzaren finantzazioko programa berriaren gakoak eskaintzen dizkizugu.

Eric Koch-i elkarrizketa,
EASME (Europar Batzordea)-ko Project Officerra

Horizon2020, ikerkuntza eta berrikuntzarako finantzaketa programa berria Europan



Horizon 2020 Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Esparru Programa berria da. Nolako ekarpena egiten dio programa honek "Europa 2020" estrategia-programari eta, zehazki, "Berrikuntzaren aldeko Batasuna" ekimenari?

Europa 2020 estrategiak, Europar Batasunean adimenduna, iraunkorra eta bateratzailea den hazkundera sortzeko baldintza egokienak sustatzera bideratua dagoena, alor zehatzetako aurrerakuntzetan katalizatzaile gisa egingo duten zazpi Ekimen Adierazgarri zabaldu ditu. Horietako ekimen adierazgarri bat da "Berrikuntzaren aldeko Batasuna", zeinen helburua den Estatu Batuen eta bestelako mundu-potentzien maila lortzea ikerkuntza zein garapenean lehiakortasun eta inbertsio-terminoetan, eta 13 sailez eta 30 berariazko jardueraz osatua dagoena. Horizon2020 (2014-2020) programa berria, ia

horiei guztiei laguntzera bideratua dagoen diseinatutako finantza-tresna da.

Horizon2020 3 zutabetan egituratzen da: Zientzia Bikaina, Industria-Lidergoa eta Gizartearen Erronkak. Zer azpimarratuko zenuke horietako bakoitzean?

Zientzia Bikainak, H2020ren aurrekontuaren herenarekin, lehentasun gisa du EBan oinarri zientifikoaren bikaintasuna sendotzea eta handitzea, bai eta europar ikerkuntza eta berrikuntza sistema lehiakorragoa izan dadin (ERA) Europar Ikerkuntza Espazioa finkatzea. Europar Batasunarentzat euskarri oso garrantzitsua izaten jarraitzen du. Alor honetan, (ERC) Ikerkuntzarako Europar Kontseiluak ardura erabakigarria izaten jarraituko du, etorkizun handikoak diren oinarritzko ikerketak bere barne hartuz.

Gizartearen Erronkek, H2020ren aurrekontu

osoaren bi bostenekin, bai Europak bai eta gainerako gizateriak ere aurre egin beharko dien erronka handiak islatzen ditu. Zutabe hau 7 gizarte erronkatan banatzen da:

- Osasuna, aldaketa demografikoak eta ongizatea
- Elikadura-segurtasuna, nekazaritza jasangarria, itsas ikerkuntza eta bio-ekonomia
- Energia segurua, garbia eta efizientea
- Garraio adimendua, ekologikoa eta bateratua
- Klima-jarduera, ingurugiroa, baliabide- eta lehengai-efizientzia
- Europa mundu aldagarri batean - gizarte inklusiboak, berritzaileak eta gogoetsuak
- Gizarte seguruak

Azkenik, baina ez horregatik garrantzia gutxiagokoa, Industria Lidergoa dugu, H2020ren aurrekontu osoaren bosten batekin,

"H2020k berrikuntzaren ziklo guztia hartzen du, oinarriko ikerkuntza edo ikerkuntza aplikatutik hasita berrikuntza-ekintzetaraino merkatu globala erdiesten duten produktu, zerbitzu eta prozesuetan"

ekonomian eta gizarte-ongizatean industriak eta ETEek duten zeregin garrantzitsua aintzat hartzen du. Hemen ere sartzen dira finantza-lanabesak (maileguak, bermeak,...), ikerkuntzaren finantzaketa aurrekontuan palanka gisa egiteko balioko dutenak.

Horizon 2020 "Europa 2020" estrategia ezartzeko tresna da; horregatik, helburu berdina lortze aldera, zutabe guztiek koherentzia batean lerrotatuak egon behar dute.

Zeintzuk dira Horizon2020en berritasun nagusiak?

Horizon2020en helburua da Europar ikerkuntzaren eta berrikuntzaren finantzaketarako irispidea erraztea. Horretarako, aurreikusiak dauden zenbait jarduera berri honako hauek dira:

- Sinplifikatzea eta koherentzia: lehen aldiz Esparru Programa bakar batek berrikuntzaren ziklo osoa hartzen du bere gain, oinarriko ikerkuntza edo ikerkuntza aplikatutik berrikuntza-ekintzetaraino merkatu globala erdiesten duten produktu, zerbitzu eta prozesuetan.
- H2020 osoaren arauen homogeneizazioa, %100eko finantzaketa 2 ratioz osatua ikerkuntza eta berrikuntza ekintzetarako. Eta %70ekoa merkatutik hurbil dabiltzan proiektuetarako. Erakunde guztientzat zeharkako kostuen tasa bakarra aplikatuko da, zuzenekoak diren kostuen %25 izango dena (azpikontratatzeko partida salbuetsita).
- Laguntza handiagoa ETE eta berrikuntzari: aurre-komertziala den erosketan, finantza-lanabesen eta ETEentzako lanabes berrien bitartez. Gainera, konpromisoa dago ETEei bideratzeko gutxienez H2020ren hiru zutabetatik biren aurrekontu konbinatuaren %20a: gizarte erronkak eta industria teknologiak
- Berrikuntza arloan ikusmira zabala hartzen du,



izan ere H2020 ez da mugatzen produktu berriak merkatuan ezartzera, prozesuak, sistemak edo bestelako planteamenduak bere gain hartzen ditu baita ere, kontuan hartuz gainera Europar garrantzitsuak diren puntuak: diseinua, sormena, zerbitzuak eta hain garrantzitsua den gizarte berrikuntzaren arloa.

- Proiektuak finantzatzeko denbora murrizketa: aurkezten direnetik onarpeneraino, 100 egunetan murriztuko da, 350 egunetik 250era igaroz.

"Europar Batzordeak, ETEek duten garrantzia ekonomikoaz jabetzen delarik, eta are gehiago krisi garaian, enpresa mota horiei zuzendutako aurrekontua 10.000 milioi euro ingururaino igo du"

Zenbateko aurrekontua du Horizon2020k?

H2020ren aurrekontua 70.000 milioi euro ingurukoa da, aurreko VII. Esparru Programaren aurrekontuaren %30 gehiago suposatzen duena. Hala ere, hasiera batean Europar Batzordeak Europar Parlamentuari bai eta Ministro Kontseilariari 2011aren amaieran proposatutakoaren zenbateko nabarmen txikiagoa da (80.000 milioi euro), baina hori egun bizi den krisiaren isla baino ez da.

Zein da ETEen parte hartzea indartzeko Horizon2020en aurreikusitako estrategia?

Europar Batzordeak, ETEek duten garrantzia ekonomikoaz jabetzen delarik, eta, are gehiago krisi garaian, enpresa mota hauei zuzendutako aurrekontua 10.000 milioi euro ingururaino igo du, Industria Teknologiak eta Gizarte Erronken aurrekontuen %20tik ekarriak. Kopuru horretatik, 3.000 milioi euro ETEen Tresnara zuzenduko dira, oso berritzaileak, hazkunde handikoak eta merkatutik hurbil aurkitzen diren proiektuak dituzten enpresa txiki eta ertainei zuzendutakoak.

Zertan datza ETEentzako tresna berria? Zein da tresna berri honen onuraduna izango litzatekeenaren ETE profila?

Europar Batasunak hainbestekoa den aurrekontua zuzentzen duen lehen aldian da, berritzaileak diren produktuak, zerbitzuak eta prozesuak merkatu eramateko prozesuan ETEei laguntzen. Tresna honek 3 fase dauzka: bideragarritasun-ikerketa, 6 hilabetetan 50.000 €-ko elkar finantzazio baten bidez (70.000 € inguruko proiektuetarako); berritzaileak diren

produktu edo prozesuen erakuste fasea, 1-2 urterako 500.000 €-tik 3 milioi eurorainoko finantzazioz; eta merkaturatze fasea, finantzatu gabea, baina publikoak diren erosketa-sare, bezero eta inbertitzaileetarako sarbidearekin Europar Batzordearen babespean.

Eskema honen bitartez lortu nahi den helburua proiektua merkaturatze negozio arrakastatsua bihurtzea da. Horretarako, ETEek negozio planak berrikuntza proiektuekin uztartu beharko dituzte, horrela, 3 faseak amaitzean, merkaturatzea lortzeko.

Horizon2020k merkaturatik hurbil dauden proiektuak definitzen ditu, "berrikuntza ekintzak" izenekoak. Zein da horien helburua eta zer nolako jarduerak lagunduko dituzte?

H2020k merkaturatik hurbil dagoen berrikuntzari jarriko dio arreta. Alde batetik, lan-programak irekiagoak izango dira, edozein motatako berrikuntzak iradoki ahal izateko askatasun gehiago emanaz. Bestetik, pilotu-proiektuak indartuko dira, produktu erakusketak, lehen merkatu-aplikapenak, bai eta sustatze-sariak, berariazkoak diren helburuen lorpenak sarituko dituztenak, horrela berritzaile kopuru handia motibatuz. Gainera, merkaturatik hurbil dauden proiektuak erosketa publiko aurrekomertzialean edo erosketa publiko berritzailean lagunduko dira, eta %70a arte finantzatuko dira.

ETE Tresna kontzeptua bera merkaturatik hurbil aurkitzen den filosofian oinarritua dago, enpresak animatuko dituen, eta hain zuzen ere ETEak, Horizon 2020en parte hartzera.

Zertan datza "Fast Track to Innovation"?

Hasiera batean Europar Parlamentutik abiatutako ekimena da, 2015ean pilotu baten bitartez martxan jarriko dena. Tresna hau eskaeratik onarpena bitarteko epea arintzeko sortua izan da, 6 hilabetera murriztuz, eta nazioartean dauden lehiakideekin dagoen lehia irabazi ahal izateko, merkatura azkar heldu beharreko berrikuntzetarako pentsatua dago. Gehienez 5 pertsonen osatutako proiektuak dira eta proiektu bakoitzeko 3 milioi euroko finantzaketa artekoak. Eskema berri honen etorkizuna, erakunde mota guztietara zabalik aurkituko dena (ez ETEak bakarrik), ebaluazio-emaizten arabera erabakiko da.

Zer dira "European Innovation Partnerships"-ak eta zer paper izango dute Horizon2020en?

European Innovation Partnership-ak (EIP-ak), epe-luzeko (5-8 urte) aliantza estrategikoak dira, nazionalak, eskualdekoak zein udalekoak, publikoak zein pribatuak diren eragilez osatuak daude eta jarduera ezberdinen bitartez gizarte eronka handiak lantzeko interesa dute.

Ez dute berezko funtsik Europar Batasunaren barnean. EIPek jada existitzen diren tresnak eta ekimenak arrazionalizatzeko, sinplifikatzeko eta hobeto koordinatzeko asmoa dute, ekintza berriak osagarri bihurtzeko horiek beharko liratekeen neurrian.

"Horizon2020 hiru zutabetan egituratzen da: Zientzia Bikaina, Industria Lidergoa eta Gizarte Erroak"

Orain artean 5 EIP jarri dira martxan honako gai hauekin: zaharkitze aktiboa; nekazaritza jasangarria; hiri eta komunitate adimenduak; ura eta lehengai ez energetikoak.

EIPak erreferentzia puntua izango dira H2020rentzat gai ezberdinetan lan programak diseinatzeko orduan.

Euskal Herria oso aktiboa da ERA-NET ekimenetan parte hartzean. Zein da bere etorkizuna Horizon2020an?



ERA-NET tresna Europar Batzordearen ekimena da ikerkuntza, garapen eta berrikuntza programen koordinazioarako eskualde eta nazional gobernuen artean. Ekimen hauek jarraipena izango dute H2020 barruan, ERA-NET Cofund izeneko programa berri batean, ERA-NET ekimenetarako EBren laguntza estra bat izango duena.

ERA-NETak oso garrantzitsuak izango dira H2020 barruan, horrela eskuratuz herrialdeen eta eskualdeen arteko ikerkuntza koordinazioa ikerkuntza esparru europarra lortzeko. Horrek esan nahi du Europar ikerkuntza eta berrikuntza sinergiak eta efizientziak handiagotu egin behar direla. Zerbaki zehatzak jakin gabe ere, herrialde eta eskualde guztiek bat eginda, Horizonte 2020ren aurrekontu guztia baino diru gehiago dutela onartzen da.

"H2020 ez da mugatzen produktu berriak merkaturatzeaz, prozesuak, sistemak edo bestelako planteamenduak bere gain hartzen ditu baita diseinu, sormen, zerbitzu eta gizarte berrikuntza arloetan ere"





* Euskadi I+D+G+I+K



**enterprise
europe
network**

"Basque Enterprise Europe Network partzuergoak SPRI du buru eta Gipuzkoako Merkataritza BEAZ eta Innobasquerekin esparru programetan parte hartzerbitzuak eskaintzen ditu."

europar gunean



...e Network"
 ...-Araba, Bilbo
 ...tza Ganbera,
 ...batera- eta
 ...tzeko laguntza

Infografiaren egilea:

Esperientziatik

MAIER

Maier. Koop Elk.-ak 2007an hasi zuen bere Europar ibilera, lider/koordinatzaile bezala proposamena aurkeztu zuen eta onartua izan zen. Apustua ausarta izan zen, eta NANOCLEAN proiektuari europar batzordearen eskutik honako aitortza-saria izan zuen: "Very good project according to the european commission". Bizitutako esperientzia eta gero gogoeta garai baten ondoren, Maier-ek bost proposamen aurkeztea erabaki zuen 2011 urtean, eta horietako bi aukeratu ziren, oraingoan partner-rola zutenak. Antzeko arrakasta ratioarekin, 2012 urtean, beste bi proposamen aurrera ateratzea lortu zuen, SCAIL-UP proiektuaren koordinatzaile/lider izateko erronka lortuz. Europar proiektu baten lidergotza/koordinaketa lanak eskatzen duen ahalegin handia saritua gertatuko da helburua argia eta proiektuaren beharretara partzuergo konprometitu eta egokia sortzea lortu denean.

Maier. Koop Elk.-ak H2020 eskuratutako esperientziarekin, Automozio merkatuaren lidergoan jarraitzeko G+B erronkak gainditzeko jarraitzeko ilusioaz aurre egiten du.

Sergio Alaiogoikoa

Maier Technology Centre-ko G+B+b proiektu koordinatzailea
maier.es

Centro de Tecnologías Aeronáuticas
ctaero.com

IK4

Datorren Horizon 2020ren ezaugarri nagusietako bat, programaren kudeaketaren kanporatze nabarmena da. Horrek berekin dakar partzuergo, plataforma publikoak eta bestelako ekimenak sustatzea, nahiz eta Europar Batzordeak gehiago edo gutxiago parte hartu bertan, horretatik kanpora dauden eta zeregin garrantzitsua duten bestelako eragileak ere badiren.

IK4ri estrategikoa iruditzen zaio parte hartze aktiboa partzuergo horietako erabaki- eta kudeaketa-organoetan. Horrela, erabakiak hartzeko orduan eraginkorrak izan gaitzake, gureak edota gurekin lankidetzan dauden enpresen interesak defendatuz. Programan zehar zabalduz joango diren lan operatiboen protagonista izanik, europar politikak gure herrialdearen interesekin lerrokaturik egon daitezkeen eragiteko egoeran izango gara, aldi berean Europar eragile zientzia eta teknologiko eragileekin bai eta puntako enprekin harreman-sarea indartuz goazela.

Javier Laucirica
Ikerkuntza zuzendaria
ik4.es

VIRTUALWARE

Nazio-mailan egindako I+G apustu luze baten ondoren, Virtualwarek 2010ean europar proiektu baten partzuergoaren parte izatea lortu zuen. Parte-hartze horrek nazioarte mailan haren kokapena poliki-poliki finkatzea ahalbidetu du, egun 3 europar proiekturen zorroa edukiz, non industria kultura, e-osasuna edo prestakuntza bezalako sektoreetan IKTen zeharkakotasuna aplikatzen baitu.

Europar esparruan egindako ikasketa prozesuaren emaitza gisa, erreferentziako ETE bihurtu da Europar Industria Sortzaileen sektorean Virtualware bideo-joko serioak erabiliz. Virtualware-k merkatu aurreratuenen eskakizunetara egokitzen diren berritzaileak diren produktu eta zerbitzuen zorroa lortu du, baikortasun handiz aurre eginez Horizon2020an ETEei irekitzen zaizkien ikerkuntza-erronka eta aukera berriei.

Unai Extremo Baigorri
CEO
virtualwaregroup.com


CIC MARGUNE

CIC marGUNEren ekintza (Errendimendu Handiko Fabrikazioko Ikerketa Zentro Kooperatiboa), europar-mailan, European Factories of the Future Research Association (EFFRA)-en jardueren parte-hartzean biltzen da. Elkarte horrek, europar industriren gidaritzapean dagoena, "Factories of the Future" (FoF) Lankidetzara Publiko Pribatuaren (PPP) ezarpena zehaztu eta sustatzen du, laguntza emateaz gainera.


CIC marGUNE-k EFFRAn egiten duen parte-hartzeak, euskal industriaren interesak Ikerkuntzako Agenda Estrategikoari helaraztea ahalbidetzen dio, eta horrela Europar Batzordearen deialdietan etorkizuneko ikerketa larroen barruan egon ahal izatea. Modu horretan, euskal interesek ordezkatuak izateko aukera dute EFFRAk Europar Ikerkuntza Espazioa (ERA)ren esparruan, produkzio teknologietan lehiakortasun-aurrekoa den ikerkuntzaz egiten duen sustapenean.

Elixabete Maidagan
Zuzendari nagusia
margune.org

CIC nanoGUNE
nanogune.eu




Fomento San Sebastián
fomentosansebastian.org



Progenika
progenika.com

Tubacex
tubacex.es



UPV/EHU
ehu.es

TECNALIA

Tecnaliaren parte-hartzeak FP7an gure industria-ehunaren lehiakortasun hobekuntzari begira, aplikagarria den ezagutza sortzea izan du helburu gisa. Korporazioak 395 europar proiektutan parte hartu du, %21eko lidertza edukiaz, estatuaren bataz bestekoa %10,8 izan denean. Europan 15. posizioan agertzen da (FP7ren 5. monitorizazio txostenean).

Tecnaliak ezagutza eta kapital intentsiboetan oinarritutako teknologietan emaitzak lortzen lagundu du, hala nola aurreratuak diren materialen fabrikazioa, mikro eta nanoelektronika, bioteknologia, nanoteknologia edo fotonika gisako produktuak eta zerbitzu berriak sortzen.

Proiektuen %30 baino gehiago, teknologia horiei begira garapenak sustatuz enprekin lankidetzan aritzera zuzenduak izan dira. Lankidetzak euskal enpresa ehunarekin bereziki altua izan da: Tecnaliak FP7an parte hartu duten euskal enpresen %55arekin aritu da lankidetzan, ETEak izanik horietako bi heren.

Rikardo Bueno
Programaren zuzendaria
tecnalia.com

BCBL

ERC (European Research Council), ikerkuntza-laguntza garrantzitsua den europar programa, Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL)eko esperientzia nabarmenena da VII. Esparru Programaren barruan, izan ere 2,5 milioi euroko finantzaketa izan du. Dena den, zentroak bestelako ekimenak ere kudeatu ditu, 10 Marie Curie beka esaterako.

BCBLren esperientziak frogatzen du, finantzaketa garrantzitsuen iturri diren programa hauetan parte hartzeak bikaintasun zientifikoa eta teknologikoa eskatzen dutela, baina proposamenak prestatzeko eta proiektuak kudeatzeko mailako profesionalak izatea ere bai. Ardura horren trukean, H2020 programak, VII Esparru Programaren ordekoak, BCBLk bere sorreratik emandako jauzi kualitatiboa bermatzea ziurtatzen du, neurozientzia eta hizkuntzaren alorrean abangoardian dagoen europar ikerkuntzan parte hartzen jarraitzeko.

Ana Fernández
Project manager
bcbl.eu

UNIVERSIDAD DE DEUSTO

Deustuko Unibertsitatea, nazioartekotzearen alde apustu egiten 25 urte baino gehiago daramatzalarik, egun 14 lankidetzak-proiektutan parte hartzen ari da 7. Esparru Programan, bai eta European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing-eko zenbait lan-taldetan ere, eta, besteren artean, lau Marie Curie-Initial Training Networks sare koordinatu ditu.

Gure partaidetza-estrategia berariazkoak diren sailetan indartsuak diren bazkide-sareen finkapenean oinarritzea da; gizarte zientzietan laguntza humanitarioa, giza eskubideak, migrazioa, psikologia, kultura eta hezkuntza bezalako gaietan; Eta ingeniartzaren sailean, alor desberdinetara aplikaturiko teknologietan (hezkuntza, osasuna, garraioa, energia eta internet). Proiektu berrietan egiten diren parte-hartzeak ex profeso egindako diagnosietatik edo martxan dauden proiektuetan antzemandako beharretatik abiatuz sortzen dira, edo baita ere lehenago ba lehenago lankide izen ditugun bazkide batzuek egindako gonbidapenetatik proiektu baten atalak burutzeko (lan-paketeak).

Toñi Caro
Nazioarteko Ikerkuntza Proiektuen Bulegoko zuzendaria
deusto.es

GRAPHENEA

Graphenearen parte-hartze aktiboa FP7ko proiektuetan funtsezkoa izan da europar industriaren garapen nabarmenen artean grafenoazko bere produktuak sartzeko. Grafenoa, 2004ean aurkitutako materiala da, propietate elektriko, termiko, optiko eta mekaniko interesgarriak dituena. Eskuratutakoa, Graphene Flagship ekimenaren onarpena izan zen, 10 urtetan 1.000 milioi euroko aurrekontuarekin. Graphenea 2010etik dabil lanean partzuergo honetan, eta 2013ko urtarrilean formalki onartu zen Europar Batasunaren apustu handi hau grafenoaren industriaren garapena bizkortzeko.

Parte-hartze aktibo honek Nokia, Philips, Airbus edo Varta bezalako funtsezko bezeroekin harremana finkatzen lagundu dio. Grapheneak Horizon 2020 programa berrian interes handia du. Oso lehiakorak diren nazioarteko proiektu horiek mekanismo onenak dira seguru asko produktu eta aplikazio berriak finantzatzeko grafenoazko materialezko.

Jesús de la Fuente
Graphenea-ko CEO
graphenea.com

Zeure proiektua Horizon 2020ra aurkeztu nahi baduzu, **honako hau jakitea komeni zaizu ...**

> Nori zuzendua dagoen

Unibertsitateak, ikerkuntza-zentroak, enpresa handiak, ETEak, enpresa-asoziazio edo -elkartek, administrazio publikoa, karrera hasieran dauden ikertzaileak, esperientziadun ikertzaileak edota maila goreneko onespenu dutenak eta interes transnazonala duten ikerkuntza-instalazioak kudeatzen dituzten erakundeak.

> Zer proiektu motatarako

Europar Batasunean dagoen behar bati erantzuten dion ikerkuntza edo/eta berrikuntza proiektuak.

> Zer onura

- Ikerkuntza eta berrikuntza jardueretarako finantzaketa
- Beste herrialdeetako erakunde eta nazioarteko sareekin parte-hartzea
- Estrategien eta merkatuen nazioartekotzea
- Teknologia berritzea
- Merkatu berrietara irekitzea
- Ikusgai izatea europar-mailan
- Lehiakortasuna areagotzea

> Zer konpromiso

- Talde-lana, transnazonala den europar partzuergoan ezagutzak partekatuz, gutxienez kideak edo elkartutakoak diren 3 estatukoak eta beren artean independenteak diren 3 erakunderen parte-hartzearekin.
- Proiektua garatzeko beharrezkoa den denbora eta baliabideak inbertitzea
- Proiektutik eratorritako arriskuak bazkideekin onartu eta partekatzea
- Lan-hizkuntza: ingelesa

> Nola prestatu proiektua

Norberaren ideia batetik abiatuz, proiektuaren koordinatzaile gisa, edo hirugarren bat lider dela partzuergo baten parte izanez, honako hauek dira jarraitu beharreko urratsak:

1. H2020en barruan finantzarria izateko proiektuen ezaugarriekin bat egiten duen ideiarene egokitasuna egiaztatzea.
2. Bazkideak bilatzea
3. Partzuergoan lan, rol eta ardurak zehaztu eta banatzea, bai eta dagozkien aurrekontuak ere.
4. Informazio tekniko eta administratiboa prestatzea
5. Bidali aurretik proposamena berrikustea

> Aurkezteko epeak eta lekua

Deialdiek hasiera eta bukaera epe finkoak dituzte, eta haien arteko tartea 3 eta 4 hilabete bitartekoa izaten da. Kasu zehatzetan, proposamenen deialdia era iraunkorrean irekita aurki daiteke programa abian dagoen bitartean. Proiektu guztiak Horizon2020ren Partaidearen Atariaren bitartez aurkeztu beharko dira:



> Nola ebaluatzen den proiektua

Proiektuak Europar Batzordeak aukeratutako eta independenteak diren adituek ebaluatzen dituzte. Horretarako, proiektuak, lehenengo eta behin, deialdi bakoitzean zehaztuta dauden aukeratu izateko irizpide guztiak bete beharko ditu, ondoren ebaluatua izateko, kalitate zientifiko eta teknikoaren, nazioarteko mailan sortzen duen eraginaren eta proiektuaren egiturak, kudeaketak eta kideek planteatutako helburuekiko duten egokieraren arabera.

> Egite-epea

Proiektu proposamena aurkezten denetik onartua izan arteko epea 8 hilabetera murrizteko konpromisoa du Europar Batzordeak. Esparru Programetan finantzatuak diren programen iraupena 3 urtekoa izaten da normalean.

> Informazio gehiago

Innobasqueren Nazioartekotze Saila:
944209488 /
jdeprado@innobasque.com

